



ELKARRIZKETA SOZIALAREN FINANTZAKETA

Iruñea, 2013ko urtarrilak 4

0.- SARRERA

Txosten honek elkarrizketa sozialarekin zerikusia duten gaien kudeaketagatik erakunde sindikal eta patronal ezberdinek (UGT, CCOO eta CEN) jasotzen dituzten diru kopuruak aztertzen ditu, hala nola formazioa, enplegua edota lan osasuna besteak beste.

Txosten honek Nafarroako aurrekontuetako diru partidak soilik jasotzen ditu, erakunde hauek kudeatzen dituzten Espainiar Estatuko diru partida handiak alde batera utziz.

ELAk egoera hau salatzen du elkarrizketa sozialak lantzen dituen gaiak bere biziko garrantzia dutelako langileentzat, enplegua, formazioa, eta lan osasuna eta segurtasuna bezalako gaiak izanik.

1.- UGT-ri, CCOO-i ETA CEN-eri NAFARROAKO AURREKONTUETAN ZUZENDUTAKO DIRU PARTIDAK

Nafarroa beti izan da buru “elkarrizketa soziala” deritzon hori lantzeko garaian. Nafarroako aurrekontuak ez dira honetatik aparte gelditzen, eta erakunde hauek (CEN, UGT eta CCOO) kudeatzeko zuzenean izendatutako diru partida mordoa jasotzen dituzte.

Esparru honetarako 2013rako zuzendutako gastuari dagokionez, Nafarroako Legebiltzarrak onartu ez zuen 2013ko Aurrekontu Proiektua hartu da oinarritzat, nahiz eta berez 2012ko aurrekontuen luzapena behar izan. Izan ere, Yolanda Barcinak 2013ko Aurrekontu Proiektuan jasotako murrizketak ezarriko dituela argia da, luzapenak hori ahalmentzen baitio. Praktikan, onartutako gastua ez burutzea izango da Nafarroako Gobernuak hori lortzeko erabiliko duen bidea.

Hau honela, 2013ko Aurrekontu Proiektuan 14,9 milioi euro esleitzen zaizkie CEN, UGT eta CCOO erakundeei zuzenean, eta irizpide objektiborik gabe (lehia edo konkurrentziarik gabe).

Aurrekontu Proiektu horrek 2012ko aurrekontuek baino finantziario txikiagoa jasotzen dute, 2012ko 20,6 milioi eurotatik (hirugarren hiruhilabeteko itxiera aurreikuspena) 2013ko 14,9 milioi euro tara pasaz. Aurreko urtean, 2011n, 19,7 milioi euro bideratu ziren elkarrizketa sozialera. Beraz, hiru urte hauek kontutan hartuta, hiru erakunde hauei zuzenean zuzendu zaien diru kopurua **55,3 milioi eurotakoa da**.

Diru partida hauek INAFREri (CEN, UGT eta CCOO erakundeei osatua) zuzendutako dirua jasotzen dute, hala nola Nafarroako Enplegu Zerbitzutik erakunde hauetara zuzentzen dena. Gainontzeko diru partidak zuzenean esleitzen dira.

**NAFARROAKO AURREKONTUETATIK UGT, CCOO eta CEN ERAKUNDEEI ZUZENAN
EMANDAKO DIRU PARTIDAK (milioi eurotan). 2011-2013**

	2011	2012	2013
Osotara UGT, CCOO eta CEN	19,7	20,6	14,9

*Iturria: 2011ko egindako gastua, 2012ko hirugarren hiruhilabeteko itxiera aurreikuspena,
2013ko Aurrekontu Proiektua (onartu gabea)*

2.- COMPTOS GANBERAK NEZ BURUZ EGINDAKO TXOSTENA

Gai hau aztertzerako garaian beharrezkoa da Comptos Ganberak Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NEZ) ikuskatzeko egindako txostena aipatzea.

Txosten honek zerbitzu honen funtzionamendua aztertzen du, Nafarroako Gobernuak 1998an sortu zuena Estatutik transferitutako enplegu politika aktiboak eta formazioa kudeatzeko. Politika aktibo hauek Nafarroako, Estatuako eta Europako diruarekin finantzatzen dira (2005-2010 epealdian Nafarroako 169 milioi, Estatuak 132 eta Europak 13 milioi bideratu zituzten).

NEZ-eko antolaketaren inguruan, zuzendaritza taldeak Administrazioako, CEN patronaleko eta UGT eta CCOO sindikatueta ordezkariez osatzen dira. Honen inguruan, Comptos-ek esan du *“saihestu egin beharko litzatekeela erakunde berberak NEZ bezalako organo bateko zuzendaritza taldeetan parte hartzea, non partaidetza hitzarmenei beraien onespena ematen dieten, eta aldi berean, horien onuradun izan ahal izatea enplegurako formaziorako subentzioetan”*.

Comptos Ganberak egiaztatu duenez, CEN, UGT eta CCOO erakundeek 2008 eta 2010 epealdian jasotako subentzioak 61,4 milioi eurotakoak izan dira NEZaren esparruan. Hain zuzen, CEN patronalak 18,2 milioi euro, UGT-k 21,4 milioi euro eta CCOO-ek 20,8 milioi euro (eta honen ANAFE fundazioak beste 0,8 milioi gehiago) jaso zituzten.

Txosten honek erakusten duen gai larrienetako bat Comptos Ganbera bera *“ezin izan dela diru laguntza hauen eraginkortasunaz mintzatu”* izan da, *“azken emaitza azaltzen duten helburu eta adierazlerik ez dagoelako”*. Eta *“aurrekontu programen adierazleak berrikustea eskatzen du zerbitzuaren aktibitatearen balorazioa egiteko”*.

Gainera, *“formazio aktibitateak eskaintzen dituzten beste zentro berriak gehitzea praktikan ezinezkoa egiten duten baremoak aldatzea”* gomendatzen du.

3.- ELKARRIZKETA SOZIALAREN FINANTZIAZIOAREN ONDORIOAK

- **Langileen arazoak konpontzen ez dituen porrot egindako eredu bat.**
Elkarrizketa sozialaren baitan egindako politikek ez dute balio langile klasearen arazoak konpontzeko: langabezia altua, prekarietatea lan istripuak, lan formazioaren kalitate txarra, etb. Egungo krisi ekonomikoak argi erakusten du elkarrizketa sozialeko politiken porrota. Horren eredu da Comptos Ganberak berak ere ezin duela subentzio hauen eraginkortasunaz mintzatu (NEZ-eko subentzioak kasu honetan).

- **Kudeaketa eredu hau gainera oso iluna da.**

Elkarrizketa sozialaren kudeaketaren inguruko informazio falta, eta honetara bideratzen den diru publikoarena oso larria da. ELAk behin eta berriz exijitu izan du gardentasun gehiago eta erakunde hauetara zuzentzen den diruaren kontrola Legebiltzarraren aldetik. Comptosek egiaztatzen du erakunde hauek berak direla beraien buruari subentzioak ematen dizkietenak formazio arloan NEZ-n.

- **Elkarrizketa sozialaren egungo ereduak gizarte bakea suposatzen du.**

Elkarrizketa horretan parte hartzen duten erakundeak, diru publikoaren zati bat eurei esleitzearen eta eurek kudeatzearen truke, gobernuak aplikatzen ari den politikak txalotzeko edo segizio-lanak egiteko prest egotea esan nahi du. Horrela, bai gobernuari euren politiken aplikazioan berez dagozkien erantzukizunak, bai enpleguan, prestakuntzan, lan osasun eta segurtasunean eta beste esparru askotan enpresaburuari dagozkien erantzukizunak, lausotu egiten dira.

- **Premiazkoa da egungo elkarrizketa soziala goitik behera aztertzea UPNren propaganda instituzionalarekin, patronalaren bake sozialarekin eta sindikatuen bezerotasun eta otzantasunarekin bukatzeko.**

Egin beharreko lana da hau, Nafarroan lan harremanen demokratizazioarekin batera. Gobernuak ez du ELA Sindikatuaren ordezkariak aitortu nahi, eta kritikak ez onartzeaz gain, ez ditu sindikatuko ordezkariak hartu ere egiten.

- **Defentsa kolektiboa lan zentroetatik sendotu.**

Azkenik, ELAk gogorarazten du sindikalismoaren lehentasuna eta zilegitasuna lan zentroetako langileen erantzun kolektiboa sendotzeko bitartekoak eta ahaleginak bideratzea izan behar duela, are gehiago egungo murrizketa eta erreforma egoeran.

NAFARROAKO AURREKONTUETAN CENeri, UGTri ETA CCOOeri ZUZENDUTAKO DIRU-PARTIDAK

	2.013	2.012	2011
ENPLEGUA	2.681.915	3.216.970	3.148.691
Enplegu Plana. Egonkortasun-programak, aitortu gabeko enplegua erregulatzekoak, eta autonomo zein ekintzaileei zuzendurikoak garatzeko, CEN, UGT eta CCOOekin egindako	714580	840.682	830.500
Enplegu Plana. Enplegu Plana garatu eta aplikatzeari begira, CEN, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmena	10	10	10
Enplegu planen jarraipen eta idazkuntzarako batzordean parte hartzen duten kideen konpentsazioa		171.000	171.000
Emakumeen berdintasuna, lana eta bateratze programak garatzeko, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmena PO FSE Navarra CCI 2007ES052P0009	290.700	342.000	336.500
Enplegu Plana. Emakumeen berdintasun, bateratze eta enplegurako programak garatzeko, CENekin egindako hitzarmena PO FSE Navarra CCI 2007ES052P0009	306.850	361.000	380.000
Enplegu Plana. Ekintzaile, autonomo eta berritzaileentzako programak garatzeko, CENekin egindako hitzarmena	206.975	243.500	206.500
Zuzendaritza-kideen prestakuntzarako eta familien enpresetan jarduteko programak garatzeari begira, CENekin egindako hitzarmena	567.800	558.778	517.331
Enplegu Plana. Enplegu programa osoak egiteko UGT eta CCOOekin hitzarmena	595.000	700.000	706.850

	1.814.580	2.244.800	1.752.750
LAN ORIENTAZIOA			
Gazteentzako lan-orientazioari begira, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmena	93500	110.000	0
Gazteentzako lan-orientazioari begira, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmena, atzeratua		110.000	
Nekazaritzako enplegurako programak garatzeko, UAGN, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmena	330650	389.000	399.000
Gizarteratzeko orientazio-ekintzak garatzeko, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmena	1390430	1.635.800	1.353.750

	1.207.061	1.585.491	1.501.570
LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA			
Enplegu Plana. Lan-arriskuen prebentziorako eta ingurumen-gaietarako Foru Erkidegoko ordezkariak prestatzeko, CEN, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmena	532.828	626.857	570.113
Enplegu Plana. Lan-arriskuen prebentzioko programak garatzeko, CEN, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmena	674233	793.215	779.600
Ezbeharren kontrolerako batzordea osatzen duten erakundeentzako konpentsazioa		165.419	151.857

	1.232.351	1.449.825	1.466.990
ETORKINEN PRESTAKUNTZA			
Enplegu Plana. Etorkinen prestakuntza eta gizarteratzeko ekintzetarako, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmena PO FSE Navarra CCI 2007ES052P0009	283.430	333.450	322.000
Enplegu Plana. Etorkinen prestakuntza eta gizarteratzeko ekintza ez-kofinantzatutak	472.390	555.750	570.000
Etorkinen gizarte- eta lan-integrazioa lortzeko, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmenak	476531	560.625	334.990
Etorkinen gizarte- eta lan-integrazioa lortzeko, UGT eta CCOOekin egindako hitzarmenak. Europako Gizarte Fondoaren 3. Helburua			240.000

	125.991	195.725	109.057
GIZARTE ZERBITZUAK			
Gizarte Zerbitzuei eta minusbaliotasunak dituzten pertsonen kontratazioari buruzko Legea garatzeko, UGTekin eta CCOOekin egindako hitzarmena	125991	148.225	109.057
Gizarte Zerbitzuen Legea garatzeko UGTekin eta CCOOekin hitzarmena, atzeratua		47.500	

	190.256	223.831	180.875
INGURUMENA			
Ingurumenarekin loturiko hobekuntza, dinamizazio eta sentikortze-programak garatzeko, CENekin egindako hitzarmena	190.256	223.831	180.875

	1.017.875	1.197.500	1.093.639
INAFRE			
Enplegu Plana. INAFREekin hitzarmena enplegu formakuntzaren ekintza eta ekimenetarako	80750	95.000	105.000
Enplegu Plana. INAFREri konpentsazioa enpleguaren formakuntzaren antolaketan parte hartzeagatik	121125	142.500	142.500
Enplegu Plana. INAFREekin hitzarmena INAFRE Lan Behatokiarentzat	816000	960.000	846.139

	6.556.000	10.366.050	10.224.472
LANBIDE HEZIKETA			
Enplegu Plana. Lanbide heziketa lehenetaz langabetuei zuzendua	3.750.000	4.953.312	4.402.472
Honetatik CEN, UGT eta CCOOek jasoa		283.050	
Enplegu Plana. Lanbide heziketa lehenetaz lanpetuei eta enplegua sustatuko dutenei zuzendua	5.400.000	9.000.000	9.000.000
Honetatik CEN, UGT eta CCOOek jasoa (gainontzekoa b ekak dira)	5.200.000	8.800.000	8.800.000
Langileentzako lanbide heziketako ekintzak	1.356.000	1.283.000	1.424.472

	108.635	118.994	283.287
BESTE PARTIDA BATZUK			
Enpresari Gazteen Erakundeari diru laguntza			115.520
Erakunde sindikalen funtzionamendu gastuentzako diru laguntzak	50.557	50.557	46.912
Sindikatuentzako diru-laguntzak	42.280	51.410	51.009
Ordezkaritza sindikalen bidaia eta dietak	15.798	17.027	69.847

	14.934.664	20.599.186	19.761.331
GUZTIRA			
GUZTIRA 2010-2012	55.295.181		

IRIZPIDE OBJEKTIBOEN ARABERA SINDIKATU GUZTIEK JASOTAKO PARTIDAK			
	2.013	2012	2011
CES-eko partaide izateagatik sindikatu, ekonomia-sozialeko erakunde eta enpresa-erakundeentzako ordaina	116.205	232.109	0
Sindikatuari beren ordezkariaren arabera tranferentzia	200.000	292.265	307.591
Sindikatuaren hauteskunde-prozesuko segimendu batzordeko kide diren sindikatuaren ordaina	10	82.248	0
GUZTIRA	316.215	606.622	307.591

HONETATIK, ELAK JASOTAKO			
	2.013	2012	2011
CES-eko partaide izateagatik sindikatu, ekonomia-sozialeko erakunde eta enpresa-erakundeentzako ordaina	7.262,81	14.506,81	-
Sindikatuari beren ordezkariaren arabera tranferentzia	42.473,78	62.104,65	65.361,25
Sindikatuaren hauteskunde-prozesuko segimendu batzordeko kide diren sindikatuaren ordaina	0	20.562,00	-
GUZTIRA	49.737	97.173,46	65.361,25

- Nafarroako Gobernuak argitaratuta dituen azken datuen arabera (2013ko onartu gabeko aurrekontua proiektua, 2012ko aurrekontu bateratua, 2011ko gastua)
- Lanpetuei zuzendutako formakuntza partidan, 5,2 milioi euro zuzentzen zaizkie CEN, UGT eta CCOO erakundeei, aurreko urteetan gertatutakoa ikusita eginiko estimazioa izanik hau, esleipena oraindik ez baita egin
- 2011 eta 2012. urteetan ELAK ordezkariaren inguruko partidak besterik ez ditu jaso (65,373,23 € eta 62.104,65 €), beste partidak ez dira ordaindu